


eman ta zabal zazu



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

**KONGRESU ZIENTIFIKOETAN PARTE HARTZEKO  
LAGUNTZEN DEIALDIA  
(2019)**

## ATARIKOA

Ikerketa sustatzea eta garatzea dira unibertsitateko jardueraren funtsezko ardatzak, eta ikerketa jardueraren elementu garrantzitsua da ikerketa, garapen eta berrikuntza biltzarretan ikerketa horren komunikazio zientifikoa zabaltzea. Xede honetarako, 150.000 € bideratuko dira Ikerketaren arloko errektoreordetzaren aurrekontuan ezarritako aurrekontu kredituaren arabera. Kopuru hau gehitu ahal izango da, unean uneko aurrekontu izatean arabera.

Horretara, Ikerketa, Garapen eta Berrikuntza Batzordearen (aurrerantzean IGBB) aldeko txostena jaso ostean eta Gobernu Kontseiluak onetsi ondoren, Ikerketaren arloko Errektoreordetzak (aurrerantzean IAE) erabaki du subentzioak emateko honako deialdi hau argitaratzea, ondoren zehaztuko diren baldintzetan.

### 1. oinarria. KONGRESU ZIENTIFIKOETAN PARTE HARTZEAREN HELBURUA

1.1. Deialdi honen bidez UPV/EHUko ikertzaileek ikerlanetan lortutako emaitzen komunikazio zientifikoa zabaltzea nahi dira estatuan nahiz nazioartean, ikerketa, garapen eta berrikuntza kongresu ospetsuetan txostenak aurkeztuz, betiere txosten horiek prozesu ireki batez (call for papers) parekoen ebaluazio bidez hautatuta.

1.2. Deialdi honetatik kanpo daude inpaktu txikiko mintegi edo workshop izenekoetan izandako parte hartzeak.

### 2. oinarria. DEIALDI HONETAN AURREIKUSITAKO LAGUNTZEN ONURADUN IZATEKO EZINTASUNAK

Ezin izango dituzte deialdi honen baitako laguntzak eskatu egoera hauetakoren batean dauden pertsonak:

2.1. Epai irmoz diru laguntza edo laguntza publikoak ez jasotzera kondenatuak izan badira.

2.2. Diru laguntzaren bat itzultzera behartuta egonik, diru guztia itzuli ez dutenak.

2.3. Ebazpen irmo bidez diru laguntzak ez jasotzera zigortuak izan badira hori xedatzen duten legeen arabera.

### 3. oinarria. KONGRESU ZIENTIFIKOEN EZAUGARRIAK

Ekitaldi zientifikoetan parte hartzeko laguntzak eskatzeko, baldintza hauek bete behar dira aldi berean:

- a. Ekitaldiek nazioarte edo nazio mailakoa izan behar dute, eta ebaluazio batzordeak baloratu beharko du garrantzi zientifikoa.
- b. Txostenak ebaluazio bidez hautatuko dituen batzorde zientifikoa izango dute.

### 4. oinarria. ESKATZAILEEN EZAUGARRIAK

Laguntza hauek eska ditzakete ondorengo lan lotura izan eta baldintza zehatz hauek betetzen dituzten irakasle eta ikertzaileek:

4.1. UPV/EHUrekiko lotura motak:

- a. UPV/EHUrekin lotutako lan kontratudun edo funtzionarioak, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzari buruzko 14/2011 legearen 23. artikulua arabera kontratatutako pertsonala (itzal handiko ikertzaileen kontratua), UPV/EHUen Ramón y Cajal programaren barruan kontratatutako pertsonala, Ikerbasque programari atxikitako pertsonala, UPV/EHU eta CSICen arteko gune mistoetara atxikitako pertsonal doktorea eta irakasle atxikiak edo lehenago izandako bitarteko lan kontratudunak, lanpostu iraunkor baterako akreditatuta egonez gero. Kasu guztietan oro, arduraldi osoan jardun beharko dute.
- b. Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzari buruzko 14/2011 legearen 21. (doktorego aurreko kontratuak) eta 22. (doktorego ondoko kontratuak) artikuluetan ezarritako kontratu modalitateen bidez UPV/EHUrekin lotura duten ikertzaile ez iraunkorrak eta 2018ko urtarrilaren 1a baino lehenagoko kontratudunak. Kanpo daude arduraldi partzialeko irakasle elkartuak.

4.2. Eskatzaileen baldintza partikularrak:

- a. Ikerketako jardueraren bat egiten ari dela egiaztatzea. Ondorio horretarako, ondorengo kasuetan ulertuko da ikerketako jardueraren bat egiten ari dela:
  - i. UPV/EHUen egiten ari den ikerketa proiekturen batean edo ikerketan diharduen ikertalderen batean parte hartzea, finantzatuta edo finantzatu gabe egonik, ikerketa proiektu hori UPV/EHUren berezko deialdietakoa edo beste hauek egindako deialdietakoa izanda: Eusko Jaurlaritza, I+G+b Plan Nazionala edo Europar Batasuna. Eta UPV/EHU denean proiektuaren finantzazioen onuraduna izanda.

Doktore aurreko eta ondoko laguntzak ez dira proiektu aktibotzat joko baldintza hori betetzeari begira. Salbuespen bakarrak Ramón y Cajal eta Juan de la Cierva ("Inkorporazio" modalitatea) programaren deialdietako laguntzak izango dira, proiektu jakin bat garatzeko finantzaketa barne hartzen baitute, kontratuaren beraren finantzaketaz gain.
  - ii. Aurreko atarian adierazitako ikerketa proiekturen batea parte hartzea, 2017ko abenduaren 31a eta gero amaitu bada.
- b. 2019an modalitate honetako laguntzarik jaso ez izana.
- c. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak finantzatutako Euskal Unibertsitate Sistemako ikertalderen batekoa ez izatea.

## **5. oinarria. LAGUNTZEN ZENBATEKOA ETA IZAERA**

5.1. Laguntzen bidez ordainduko dira biltzar zientifikoetan parte hartzeari lotutako izen emate, bidaia, ostatu eta mantenu gastuak. Gastu horiek eskatzailearen izen-deituraz eta NAN zenbakiaz agertuko dira. Ez da UPV/EHUren izenean jarritako gasturik. Diru laguntzaren zenbatekoa kongresua egingo den herriaren arabera zehaztuko da.

5.2. Esleituko diren zenbatekoek balio maximo hauek izango dituzte:

- Estatu espainiarreko herrietan: 800 € eskaera bakoitzeko.
- Europako herrietan: 1.300 € eskaera bakoitzeko.
- Europatik kanpoko herrietan: 1.900 € eskaera bakoitzeko.

5.3. Komunikazio edo txosten bakoitzeko, komunikazioaren edo txostenaren egile ikertzaile batek bakarrik eska dezake laguntza.

5.4. Bidaia ozeanoz bestaldekoa den zein ez, gehien dela, kongresuko egunak finantzatuko dira, gehi biltzarraren aurretiko bat eta kongresua amaitu ondorengo beste bat, betiere egin beharreko bidaiak hala justifikatzen badu.

5.5. Norberaren ibilgailua erabiliz gero, eta gehienez ere 2.000 km-tara arte (joan-etorria), kilometro kopuruari dagokion tarifa aplikatuko da, 5.6. atalean adierazitakoaren arabera.

5.6. Laguntzen gehienezko zenbatekoak gorabehera, aurreko ataletan adierazitakoak, zenbatekoak eta horiek justifikatzeko moduak bat etorriko dira joan-etorria hastean indarrean dagoen UPV/EHUren barne arautegiak zerbitzuengatik kalte ordainei buruz dioenarekin. Kongresuko antolakuntzak proposatu eta aipatu den arautegiaren I. edo II. eranskinetan zehaztutako balio mugak gainditu lukeen hotela erabili bada, dokumentuz ziurtatu beharko da lojamendu hori antolakuntzak proposatutako hotela eta arautegiko balioetara gehien hurbiltzen zirenak direla.

5.7. Laguntza hauek ez dira bateragarriak administrazioak eman dezakeen beste edozein diru laguntzarekin, baldin eta helburu bera badute.

## **6. oinarria. ESKAERAK AURKEZTEKO EPEAK**

6.1. Eskaera ikertzaileak berak egingo du, bere saileko/institutuko kontseiluak edo atxikita dagoen ikerguneko organo balioideak oniritzia emanda.

6.2. Eskaeretan agiri hauek aurkeztu behar dira:

- a. Arauzko inprimakian egindako eskaria, kongresuaren hasierako eguna baino, gutxienez, 45 egun lehenago aurkeztu beharko dena.

- b. Biltzarraren izaeraren justifikazioa, eskaerari Batzorde Zientifikoaren osaera eta txostenak hautatzeko prozedura erantsita.
- c. Txostena aurkeztua izateko onespena. Baldin eta eskatzaileak eskaera aurkeztean aipatutako onespena ez badu, laguntza jasotzeko dokumentazioa aurkeztu beharko du geroago, baina bidaia hasi aurretik betiere.
- d. Onartua izan den eta biltzarrean aurkeztuko den txostena.
- e. Lizentzia edo Irakasle-ikertzaileen arloko Errektoreordetzari lizentzia eskatu izanaren frogagiria. Edonola era, lizentzia bidaia hasi aurretik emango da.
- f. Ikertzaile eskatzailearen curriculuma.
- g. Dagokion eskaerarekin batera, eskatzaileak sinatutako zinpeko adierazpen bat aurkeztuko da, 2. oinarrian jasotako egoeretan ez daudela adieraziz.

6.3. Deialdi hau era deszentralizatuan kudeatzen da; hortaz, eskaerak campusetan aurkeztu beharko dira. Hona hemen helbideak:

- Arabako campusa: Arabako Campuseko errektoreordeari zuzenduta, erregistroaren bidez. Izardui komandantea K., 2. 01005 Gasteiz
- Bizkaiko campusa. Bizkaiko Campuseko errektoreordeari zuzenduta. Eskaera bide telematikoak erabiliz egingo da, Bizkaiko Campuseko Errektoreordetzaren webgunearen bidez:  
<http://www.ehu.eus/eu/web/bizkaia/bidai-poltsak>
- Gipuzkoako campusa: Gipuzkoako Campuseko errektoreordeari zuzenduta. Eskaera bide telematikoak erabiliz egingo da, Gipuzkoako Campuseko Errektoreordetzaren webgunearen bidez:  
<http://go.ehu.eus/biltzar-zientifikoetan-partehartzea-eu>

6.4. Eskatzaileak agiriak UPV/EHUko bi hizkuntza ofizialeko batean edo ingelesez aurkez ditzake.

## **7. oinarria. ESKABIDEAK EBALUATZEKO IRIZPIDEAK**

Laguntzak esleitzeko proposamenak campus bakoitzean egingo dira, eta campus bakoitzeko errektoreordeak izendatutako batzordeek egingo dituzte.

7.1. Irizpide hauen arabera ebaluatuko dira eskaerak:

- a. Biltzar zientifikoa antolatzen duen elkarte zientifikoaren garrantzia (50 puntu).
- b. Eskaera egin duen ikertzailearen curriculuma, kolektibo bakoitzaren kategoria profesionalaren arabera (50 puntu).

7.2. Finantzaketa jasotzeko modukoa izan dadin, eskaerak 70 puntu lortu behar ditu gutxienez. Honez gain, ponentzia UPV/EHUUn egindako ikerlan baten emaitza izango da eta argitalpenean UPV/EHUren erakunde filiazioa eta bere ikusizko nortasun korporatiboa jaso beharko dira, unibertsitateak agindutako baldintzen arabera. Ikerketa egiteko, gizakiak, beren laginak zein datuak erabilia egin bada edo animaliekin edo biosegurtasuna eskatzen duen laborategi batean, kasuan kasuko etika batzordearen aldeko txostena aurkeztu beharko da.

## **8. oinarria. ESKARIAK AURKEZTEKO EPEA**

8.1. Deialdi hau irekita egongo da dagokion aurrekontu ekitaldian edo kreditu erabilgarria gastatu arte. Gorabehera hori gertatuz gero, argitaratu egingo da guztiek jakin dezaten.

Ezarritako arautegia indarrean egongo da harik eta egungoa ordeztuko duen hurrengo deialdia argitaratu arte.

## **9. oinarria. LAGUNTZAK GESTIONATZEKO ORGANOA**

Campusetako errektoreordetzek kudeatuko dute deialdi hau.

## **10. oinarria. ESKARIEN TRAMITAZIOA ETA BALIOESPENA**

10.1. Deialdiko eskaerak edonoiz aurkez daitezke, hau da, deialdia indarrean egon bitartean, eta deialdiaren indarraldia luzatuko da harik eta 2020an ordeztuko duen deialdi berria argitaratu arte. Horrenbestez, 4.2.b oinarrian agertzen den 2019. urteari buruzko aipamena aldatu eta 2020 jarri beharko da, egungo deialdia 2020an indarrean dagoen bitartean

Hala ere, diru laguntzak campusetako errektoreordetzek eman edo ukatuko dituzte zuzenean, eta, modu horretan, jasotako eskaerei azkar erantzutea lortuko da.

10.2. Jasotako eskaerak 7. oinarrian ezarritako irizpideak erabiliz ebaluatuko dira. Eta behar izanez gero, kanpo ebaluazioak egingo dira kasuan kasuko jakintza arlo bakoitzeko aditu independenteen bidez.

### **11. oinarria. EBAZPENA**

11.1. Campuseko errektoreordetza bakoitzean eraturako batzordeek, ebaluazioa egin ondoren, campusetako errektoreordeei aurkeztuko diete laguntzak esleitzeko proposamena. Deialdia gehienez ere bi hilabeteko epean ebatziko da, eskaerak aurkezteko epea amaitzen denetik hasita. Aipaturako epean berriazko ebazpenik eman ez bada, eskaerak ezetsi egin direla ulertuko da.

11.2. Campusetako errektoreordeen ebazpen nominalaren bidez jakinaraziko zaio ikertzaile bakoitzari ukaturako edo onartutako eskaera bakoitzari buruz erabakitakoa, baita kasuan kasuko zenbatekoen berri eman ere. Eskatzen badute, ebaluatzeko eta hautatzeko irizpide bakoitzean lortutako puntuazioaren berri emango zaie eskatzaileei. Nolanahi ere, atalka zein osorik ezetsitako eskariak arrazoituak izango dira.

11.3. Adjudikazioaren gaineko erabakian, emandako laguntza bakoitzari buruz honako hauek aipatuko dira:

- a. Esleipendunaren izen-deiturak.
- b. Zer sailetakoa edo zer institututakoa den.
- c. Jardueraren izenburua.

11.4. Ebazpenaren aurkako berraztertze errekurtsua aurkez dakioke ebazpena eman duen organoari, hilabeteko epean, bat etorri Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeak 123. artikuluan zehaztutakoarekin.

11.5. Era berean, aipatu ebazpenaren kontrako administrazioarekiko auzi errekurtsua jarri ahal izango da, bi hilabeteko epean, jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik hasita.

#### **11.6. DIRU LAGUNTZA ORDAINTZEKO BALDINTZAK**

11.7. Laguntza ordainketa bakarrean emango da, aurkeztutako gastuen justifikazioan oinarrituta.

Ordainduko den zenbatekoa, gehienez, 5.2. oinarrian ezarritako diru laguntzaren zenbatekoa izango da.

11.8. Laguntza eskatu dutenek egindako ordainketen jatorrizko frogagiriak aurkeztu beharko dituzte egindako gastuen justifikazio gisa:

- a. Bidaiak: txartelak, ontziratze txartela eta tiket originalak eskatuko dira horiek ziurtagiri gisa, eta horien faktura edo ordainketa frogagiriak.
- b. Ez da onartuko ibilgailuak alokatzeko egindako gasturik.
- c. Ibilgailu partikularra erabiliz gero, egiaztagiriko gisa gorde beharko dira autopistetako agiriak edo antzekoak, hau da, joan-etorri horiek justifikatzen dituztenak.
- d. Egindako ostatu eta mantenu gastuen frogagiriak, betiere helmugako herrialde bakoitzean onartutako gehieneko balioak kontuan izanik.

11.9. Era berean, biltzarraren antolatzaileak emandako bertaratze ziurtagiriaren kopia erantsiko da, biltzarra zenbat egunetakoa izan den jasotzen duena.

#### **11.10. JARRAIPENA**

11.11. Kasuan kasuko campuseko errektoreordetzak antolatuko du subentzionatutako eskariei jarraipena egiteko prozedura.

11.12. Inola ere ez da fotokopiarik onartuko jatorrizko agiriak galtzeagatik.

#### **11.13. SUBENTZIOA EMATEAREN BALDINTZEN ALDAKETA**

11.14. Ikertzaileei diru laguntza emateko kontuan hartu diren baldintzak aldatzen badira, betiere diru laguntzaren helburua bete dela ulerturik, eta ikertzaileek diru laguntzarik jasotzen badute beste erakunde publiko edo pribaturen batetik, horrek bere garaian diru laguntza emateko onartutako ebazpena aldatuko duen ebazpena ekar dezake. Bertan, ondorengoa ezar daiteke:

- a. Jarduerari esleitutako aurrekontua murriztea.
- b. Eskatzaileak jasotako laguntza osoa edo zati bat itzultzea.

11.15. Horretarako, ebazpena emango da, lehenik, dagokion administrazio prozedura eginda, azaroaren 17ko Diru Laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorrari jarraituta, eta Ikerketa, Garapen eta Berrikuntza Batzordeak proposatuta edo aurrez txostena eginda. Ebazpena diru laguntzaren titularrari jakinaraziko zaio.

11.16. Honako kasu hauetan ulertuko da diru laguntza jasotzeko baldintzak aldatu direla:

- a. Laguntzaren titularrak bertaratzeari uko egiten dionean, hots, laguntzaren xedea betetzeari.
- b. Ekintza berberera egiteko beste iturri batetik heldutako diru laguntza pilatzen denean, edo behar adina justifikatu gabe ekintza beraren aldakiak aurkezten zaizkienean beste erakunde edo zentro publiko nahiz pribatu batzuei diru laguntza jasotzeko, aldeztu aurretik Ikerketaren arloko Errektoreordetzari horren berri eman gabe.
- c. Deialdi honetako oinarriak, guztiak edo batzuk, modu larrian urratzea.
- d. Eskaperan datuak ezkutatu, aldatu edo moduren batera edo bestera manipulatzeko.
- e. Gastu bera aurrekontuko atal organiko bati baino gehiagori egozteko.

#### **11.17. LAGUNTZA ESKURATZEN DUTENEN LEGEZKO ERANTZUKIZUNA**

Deialdi honetan jasota ez dagoen guztirako, Diru Laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean ezarritakoari jarraituko zaio, besteak beste, diru laguntzak itzultzeari buruzko xedapenei eta arau hauste eta zigorreri buruzko arauak.

Aurreko ondorioetarako, ulertuko da Diru Laguntzei buruzko Lege Orokorrean aipatzen diren beste administrazio batzuetako organo zehatzen inguruko aurreikuspenak eskumen baliokideak dituen unibertsitateko organoak (edo honen ahalik eta antzekoenak dituen organoak) ari direla.

**AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA**

Deialdi honek administrazio bidea amaitzen du, eta beronen kontra administrazioarekiko auzi errekurtsoa jar daiteke Bilboko administrazio auzietako epaitegietan, bi hilabeteko epean, deialdia argitaratzen den egunetik kontatzen hasita. Aurrekoa gorabehera, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsoa aurkez dakioke Ikerketaren arloko errektoreordeari, deialdia argitaratu eta hilabeteko epean, 39/2015 Legearen 123. artikuluari jarraituta.

**AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA**

Honako deialdi hau Ikerketaren arloko Errektoreordetzaren webgunean argitaratzerakoan sartuko da indarrean.

Leioa, 2019ko urtarrilaren 31n.

José Luis Martín González  
Ikerketaren Arloko Errektoreordea  
Vicerrector de Investigación